

HEZKUNTZA
EZ DA
TXANTXA!!



Nesken eta emakumeen
eskubideen alde.

ISTORIO HANDIA

2009-ko Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza Astearen - Liburu bat
zabalduz, mundua eskura- ipuin sorta.

Ana Ester

Arrasateko Udal Euskaltegia, Gipuzkoa.

Ana Ester nauzue, 45 urtekoa. Sao Paulon jaio nintzen. Txikitan zapata-lantegi batean lan egiten nuen egunero hamar orduz.

Etxean ere lagundu behar izaten nuen, sei neba-arreben artean, ni handiena nintzen eta.

Gurasoek kanpoan lan egiten zuten. Egunsentia baino lehen ur bila joan behar izaten nintzen

gosaria prestatzeko, eta nire neba-arreben aurpegiak eta eskuak garbitzeko.

Gero, nire bi neba handiekin, -zazpi eta zortzi urtekoak- , zapatak jostera joaten nintzen oso diru gutxiren truke.

Iluntzean, denok elkartzen ginen afaltzeko eta senide guztiak oheratzen zirenean, nire ama eta ni arropak garbitzen eta txukuntzen gelditzen ginen.

Baina, egun batean gure bizitza aldatu egin zen. Goizean oso goiz atea jo zuten, gizon dotore bat zen. Bere maletinean gobernuko hezkuntza plana zeraman.

Hasieran, gurasoek ez zuten nahi gu eskolara joatea, geure laguntza eta dirua behar zituztelako baina...

dirua eskaini zien eta guk idazten eta irakurtzen ikasi genuen.

- Hau gezurra da, gu Mertxe eta Manoli gara, Arrasateko bi emakume.

Baina egia izan zitekeen; egon ziur, badakigu Ana Ester asko daudela Sao Paulon eta munduko beste hainbat hiritan.

Alfabetatu gabeko neskatxa

Nerea A., Arantzazu, Ane, Irati

Bazen behin alfabetatu gabeko neskatxa, Ameriketatik etorri zena.

Hemen zegoela konturatu zen, pertsona independentea izateko irakurtzen eta idazten jakitea oso garrantzitsua zela.

Ezin zuen etxeko fakturak konprobatu, ezin zuen lana aurkitu ezta ikasketak egin ere.

Horregatik liburu bat hartu zuen eta bere lagunaren bila joan zen. Berak irakurtzen eta idazten irakatsi zion eta neska oso pozik jarri zen. Hortik aurrera liburu asko irakurri zituen, lana topatu zuen , ez zioten faturekin timatzen...

Bizitzaren eskola

Idoia Etxeberria. Oñati. Gipuzkoa.

-Eskolara zoaz? Zertarako?- burlaizez hitz egin zion bizilagunak. Serafinak. 25 urterekin, eskolara? Emakumea izanda, eskolara? eta etxeko lanak? eta umeak? eta senarraren bazkaria? Eta baratza? Ama txarra zara, emazte txarra, esan zion. Baina esan gabe. Galderak eta mespretxua airean utzita. Ulertu zuen.

Zertarako? Berak ere ez zekien oso ondo. Eta ez zion erantzun. Koadernoan estutu zuen. Burumakur, lotsatuta. Bere izena idazten zekien ordurako: YAsmiNe. Hizki larriz. Hizki dardarti eta okerrez. Eta hitz inportante baten esanahia ere bai: eskubidea. Andereñoak behin eta berriro esaten zion eskolara joateko eskubidea zuela. ez larritzeko. Ez zela damutuko. Irakurtzea mundura leiho bat zabaltzea zela azaldu zion. Idaztea, etxean tximinia beti piztuta izatea. Eskubidea bai, baina betebeharrak zer? Beharbada arrazoia izango zuen serafinak, esaten zuenean 'bizitzaren eskola' zela onena. Beste dena txorakeriak zirela. Denbora alferrik galtzea.

-Eskolatik zatoz? Zer ikasi duzu?- Errezeloz hitz egin dio bizilagunak. Zer dakizu zuk nik ez dakidanik? Egia ote negozio txiki bat jartzeko asmotan zabiltzala? Zergatik zaude hain harro? Hain pozik? Hain bizirik? Inbidia ematen didazu. Nik ere nahi dut, esan dio. Baina esan gabe. Galderak mespretxuaren doinuarekin mozorrotuta. Ulertu du.

Ikasi? Zer ikasi duen nola esplikatu ez daki oso ondo. eta erantzun dio: "Zu ere garaiz zabilta". Liburuak altxatu du. Irribarrez, maitekiro. Kontuak egiten daki orain. Eta idazten. Hizki borobilduekin. Eta begien beharrik gabe ikusten: zer dagoen mendiaren ondoren, itsasoaren beste aldean. Liburuak leiho gisa erabiltzen. Tximinia piztuta du. Eta ez zaio damutu. Konturatu da eskolara joatea bere eskubidea ez ezik, betebeharra ere badela. Beharbada esan beharko dio Serafinari txorakeria batzuk inportanteak direla. Ez dela denbora alferrik galtzea Hiesa nola ez harrapatu jakitea. Seme-alabei ikasketak ematea. Edo baratzean loreak landatzen ikastea. Hori ere 'bizitzaren eskola' dela.

Serafinari buruzko poema, Yasmineraren koadernoan:

*Ama da. Eta alarguna.
Ama da. Alarguna. Eta pobrea.
Ama da. Alarguna. Pobrea eta ezjakina.
Ezjakina den artean
beti izango da pobrea ama alarguna.
Pobrea diruz.
Pobrea buruz*

Sara eta Mihi

Uxue Rodriguez

Sara estatu batuetako 10 urteko neska bat da. Bere aita enpresaburua da eta amak aitaren enpresan lan egiten du.

Uda honetan mundutik bidaiatzeko intentzioa du familia osoak. Bidaian daudela safari bat egiten dute Sudanetik zehar eta gaua alokatutako gela batean pasatzen dute. Sarak etxean bizi den neskatxa ezagutzen du Mihi izenekoa. Mihi ez da eskolara joaten eta ez dauka Sararekin jolasteko denborarik amarekin lan egin behar duelako. Bere anai txikia eskolara doa, mutila delako, baina itzultzerakoan ere ama lagundu behar du.

Mihiren anaiak irakurtzen ikasten ari da, baina ezin denez egunero eskolara joan bakarrik saiatzen da, baina gutxi aurreratzen du.

Sarak bere buruari galdetzen dio zergatik Mihik ez dion bere anai txikiari laguntzen, baina noski...

eskolara ez badoa, ez du jakingo irakurtzen ere, pentsatze du Sarak. Pena ematen dio, baina berak ezin du ezer ez egin.

Orduan Sarak konpromesu bat hartzen du, oraingoz gainean daraman liburuak oparituko dizkio, baina hurrengo urtean bueltatuko da eta irakurtzen irakatsiko dio bere lagun berriari. Espero dugu horrek Mihiren bizitza hobetzea.

Bizi garen XXI. mendean, ezinezkoa da irakurtzen jakin gabe bizitzea garatutako herri batean, azpigaratuetan, berriz irakurtzen jakitea pribilegio bat izan daiteke.

Ipuina

Clara Salanueva Beldarrain

- Magali, ohera.....

Bere amaren ahotsa entzuterakoan, Magali, jostailuak utzi eta korrika doa bere ohearen gainean dagoen apalategiko libururen bat hartzera. Osta- osta iristen da, oin puntetan, baina azkenean, beti, lortzen du liburua eskuratzea. Ondoren ohean sartzen da eta hor itxaroten du bere ama etorri arte. Ea gaur suertea daukagun- pentsatzen du bere baitan.

Bere ama nekatuegia ez dagoenean, bere ondoan jarri eta liburua hartuta ipuin eta istorio miragarriak kontatzen dizkio. Oraindik ez daki oso ongi nola dihoan gauza; kontua da, amak, liburua hartzen duela eta magia balitz bezala istorioak kontatzen hasten dela.

Magalik ez daki nola egiten duen bere amak. Bera askotan saiatu da, liburua begiratu, alde batetik eta bestetik...Lliburua gora, behera... eskuinera eta ezkerrera... baina Magalik ezin ditu kontatu amak kontatzen dituen istorioak. Nola egingen du amak?

Gaur ama etorri da logelara eta Magali han ikusita ohe barruan, liburua eskutartean eta prest.... farregurea sortu zaio amari eta liburua hartuta hasi da berriz istorioak kontatzen: Bazen behin, urrutiko herrialde batean...

Amak gaurko istorioa kontatzen dion bitartean, Magalik burutazio bat izan du: akaso, amak dituen betaurrekoak izanen banitu, nik ere horrelako istorioak kontatuko nituzke...

Eta amaren ahots goxoarekin ametsen munduan murgildu zen berehalaxe Magali.

Kenia eta eskola

HIP Sanduzelai. Iruña

Bazen behin, Afrikan neskatxa bat, Kenia zuela izena. Begi marroi argiak zituen. Aho txikia eta gorri -gorria zuen. Ile beltza kizkurra eta motza zuen. Beltzarana zen eta 10 urte zituen Keniak ez zekien irakurtzen, idazten... inoiz ez zelako eskolara joan.

Egun batean, etxez aldatu behar ziren Orarkaienera eta 2 neska ezagutu zituen Sandra eta Paula. Oso lagunak egin ziren eta sandrak eta paulak Keniari asko gustatu zitzaaien eta bere aitaei esan zien.

Ama-aita eskolara joan ahal niteke?

Bere gurasoak esan zuten:

-Beno... Ados. Bihar goizean joango gara gaur etxea prestatuko dugu.

-E! Zoaz zure logela ikustera.

Eta Keniak ikusi zuen, Orduña esan zuen:

-Ama, aita, asko gustatzen zait. Eskerrik asko. -

-Ez horregatik –esan zuen aita.

Eta denak ohera joan ziren.

Hurrengo egunean...

-Kaixo Kenia –esan zuten Sandrak -

eta Paulak- Zer egiten duzu hemen?

- Eskolara nator, gurasoak utzi didate. -

- Orduña, zurekin joango gara! -

- Bai!!! Bai!!! Je je je.

Kenia beste lagunentzat oso arraroa zen. Berarekin bakarrik sandra eta paula egoten ziren

jolas Orduña. Klase barruan mirian, Araceli eta Oroitzek Keniari esan zioten:

- Irakurri ezazu parrafo bat, Kenia.

Keniak "salaudrelnakortzogermincita" irakurri zuen. Paulak esan zuen:

- Baina Kenia, hemen "denak berdinak garela" jartzen du.

- Barkatzen, ez dakit irakurtzen

Eta Aintzek farra egin zuen: "Ja, ja, ja". Gero barkamena eskatu zuen.

- Barkatu Kenia, nik eta klase guztiak irakurtzen erakutziko dizugu. -

Bi aste ondoren Keniak irakurtzen bazekien klasearen laguntzarekin. Keniak matetan 10 batatera zuen klaseari esker.

Eta Ororkoienera plazan hau guztia bukatzen da.

Engainatu zuten emakumea

Ane Caceres

Santa Teresa. Arizmendi Ikastola. Arrasate (Gipuzkoa)

Gezurra dirudi XXI. Mendean hau gertatzea. Selina 45 urteko emakumea Boli Kostan bizi da bere bost seme-alabekin .Batek 10 urte ditu eta sherai deitzen da. Selinak badaki bere izena ahoskatzen , baina beste 4-ena ez daki . Ez daki ezta zenbat urte dituzten, ezta nola deitzen diren, ez duelako memoria onik. Alarguna da, ez dauka gizonik, orain dela gutxi hil zitzaiolako 46 urterekin oso txarto zegoelako. Selina alaia eta zoragarria da. Bere aurpegia beltzarana, begiak ikatz kolorekoak ditu eta oso altura handikoa da.

Bere arropa ez dira gureak bezalakoak, trapuekin estalita du gorputz guztia eguzkiarekin ez erretzeko.

Oso ona da bere seme-alabekin, ez ditu bata bestearekin konparatzen denek lan asko egiten dutelako. Baina selinak ezin die lagundu etxerako lanetan ez dakielako irakurtzen eta idazten, orduan denek denei lagundu behar izaten dute. Baina egun batean bi gizon agertu ziren bere etxeko atarian, atea jo eta horrela erantzun zuen Selinak:

-Zein da?

-Gu zuri gauza interesgarri bat esatera gatoz.

-Bale orduan pasa zaitezket.

Erantzun zien selinak. Bi gizonak beltzez jantzita zeuden biek begi marroi ilunak eta ezpainak gorri ilunezkoak zituzten. Anaiak ziruditen aurpegia antzerakoak zituztelako. Aurpegian asko igartzen jaken gezurtero batzuk zirela baina selinak ez zekien zeintzuk ziren gizon horiek eta barrura sartzen utzi zien. Gizonek selina engainatu zuten hau esanez.

-Hemen paperean jartzen du zure senarra hil zenetik zure etxea eta kanpoko lorategi hori zurea eta zure seme-alabena dela.

Selina oso pozik jarri zen baina zerbait arraroa sumatzen zuen gizonen aurpegietan.

Baina gizonek esaten zuten.

-Bai egia da guk oraintxe bertan esan dizuguna.

Hori esaten selina egia zela pentsatu zuen, ez zuen erremedio gehiago firmatzea baino. Baina minutu batzuk pasatu ondoren selinak esan zuen.

-Barkatu ez dizuet esan ez dakitela irakurtzen.

Eta gizonek erantzun zuten.

-Bueno bale ba orduan zure atzamarraren marka ipiniko duzu.

-Ongi da nire atzamarraren marka ipiniko dut.

Aste bat igaro zen papera firmatu zuenetik eta ez zen inor agertu selinaren etxeko atarian.

-Egia izango da bi gizonek esandako dena.

Hori pentsatzen zuen Selinak ez zitziolako inor agertu bere atarian. Ikastolatik ateratzerakoan ume guztiak joaten ziren Selinaren kanpoko zelai berdera. Baina handik aste batera Selinaren atarian gizon batzuk agertu ziren beltzaranak hauek, txuriz jantzita zihoazen baina beste guztian agertu zitzairen gizonen berdin-berdinak ziren, eta horrela erantzun zien Selinak.

-Zuek zertara etorri zarete? Niri fastidiatzera?

-Ez gu hona gatoz zuk zure etxea erregalatu diguzulako.

-Zer? Ni nire etxea zuei eman dizuedala? Hori gezurra da nik ez diot nire etxea inori erregalatu.

-Ba hemen hori jartzen du.

Erantzun zuten gizonek. Eta gizonek Selinari paperean jarrita zegoena irakurtzen hasi ziren, orduan Selinak barkamena eskatu zien eta etxea gizoni itxi eta kanpora irten zen. Umeak etxera heltzean eta gizon batzuk ikustean moskeatu egin ziren, eta kanpoan topatzen hasi ziren euren ama eta han aurkitu zuten zuhaitz baten azpian negarrez eta esan zuten umeek:

-Ikusi dugu gizon batzuk zeudela eta zuri kalean topatzea pentsatu dugu.

-Ba oso ondo egin duzue niri kalean topatzen, oso pozik nago zuetaz.

Eta gertatu zen guztia kontatzen hasi zen eta ideia bat iruditu citación Seraiei hau zen bere ideia. Denok batera sartzea etxera, gizoni kanpora botatzea, eurak sartu eta etxea giltzarekin ixtea. Esan eta egin eta horrela lortu zuten beraien etxea.

Eta Selinak pentsatuzuen irakurtzen eta idazten jakin behar zuela eta handien ikastola batera joan zen eta han irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Handik aurrera ez zioten berriro engainatu, bere umei etxerako lanetan laguntzea bazuen eta harrigarriena da orain bere herriko irakurlerik onena dela.

Jendea Anari engainatzen

Alaitz San Vicente

Santa Teresa. Arizmendi Ikastola. Arrasate (Gipuzkoa)

Amama Anari Madagaskarren bizi da 50 urterekin.

Anari lodia da, betaurrekoak ditu, begi ilunak, karakter onekoa eta beltza da. Bere senarra 2008ko abenduaren 25ean hil zen ontzia ondoratu zitzaiolako. 4 ume ditu: Arin, Siriwa, magali eta Imaguari. Beraiek txabola txiki batean bizi dira, bere lau umeak eskola txiki eta publika batera doaz.

Arinek 8urte ditu, siriwak eta magalik 10 eta imaguarik 4 urte.

Han andereño gutxi daude eta ez dituzte hainbeste mediku.

Oso pobreak dira. Anarik ez daki irakurtzen eta idazten, garai haietan ez zegoelako eskolarik.

Berak arazoak zituen edozer gauzogatik eta engainatzen zioten egunero-egunero. Baina berak ez zekien zer zen eta egun batean lau gizonetzko beltz joan ziren bere etxera.

- Tok tok tok
- Bai
- Zu Anari zara?
- Bai ni berbera naiz. Zer nahi duzue?
- Hemen sinatzea mesedez.
- Baina nik ez dakit idazten.
- Orduan zure hatz marka itsatsi.

Anarik bere hatz marka itsatsi ondoren bere alaben bila joan zen eskolara.

Eskolatik bueltan parkera. Han beraien lagunekin jolasten ari ziren.

Hurrengo egunean polizia iritsi zen bere etxera.

- Tok tok tok, Anari al zara?
- Bai ni naiz.
- Atxilotuta zaude.
- Zergatik?
- Zuk sinatu zenuelako delitu bat egin zenuela.
- Baina nik umeak ditut, eta zer egingo dut.
- eskola batera joango dira.

Kartzelatik atera zenean, itsasontzi baten euskal Herrira etorri ziren.

Han etxe babestu batera joan ziren, han egun batzuk pasatu ondoren etxe bat bilatu zuten.

Anariren alabak ikastola handi batera joan ziren. Anari gainera irakurtzen eta idazten ikasten hasi zen nagusientzako ikastola baten.

Bi edo hiru urte pasatu zirenean Anarik irakurtzen eta idazten zekien eta ez zion inork engainatzen. Horrela jarraitu ondoren emakumea Zumaiako andereñoa da.

Eta familia osoa oso pozik bizi da euskal Herrian.

Amamak letren doinua ...

Rakel Carrero

Aldatze- Colegio Santa María de la Providencia- Eibar

Zaila litzateke gaur egun idatz eta irakur jakin gabe imajinatzea gure bizitza. Hala ere, gertu bizi diren pertsona batzuk egoera horretan bizi dira. Aurpegiko zarma galdu ez duela uste dut eta gaztetasunaren isla ikus daiteke oraindik bere begietan. Baina denborak utzitako orbainek bere ñabardurak marrazten dute. Bizitza luzea berea.

Amamak letren doinua ezagutu ez duen zahar horietakoa da. Egia esan harrigarria iruditzen zait inguratzen zaituzten mezuak ulertu gabe aurrera egitea Bederatzi bat urte zuelarik bere amak auzoko bizi lagun batek irakurtzen irakasten zuenaren berri izan zuen eta bere alaba bidali zuen. Hamabost pezetaren truke amamak bertara joateko aukera zuen lengoaiaren berezitasunak ikastera. Arbeltxo baten auzolagunak a, e, i... letrak jartzen zituen eta umeri euren izenak idaztea irakatsi zien, horixe gogoratzen du berak. Orduan bere amak ahizpa bat ekarri zion eta garaiko arazoak zirela eta, bera zaintzera dedikatu zen bizilagunaren etxera joaten jarraitzeko aukera galduz.

Bederatzi urterekin bukatu zen bere eskolako irakaskuntza eta gaur egun arte horrekin moldatu da, ederki esango nuke nik.

Numeroen balioa kontrolatzen du eta erosketako produktuen kaxa eta kolorez baliatzen da behar duena erosteko. Argazkiak oso baliagarriak izaten zaizkio baina oztopoak aurkitzean ez du galdetzeko arazorik. Bere seme eta iloben laguntzarekin gauzen zentzua ikasten du eta beste askori moduan gazteriaren gauza pila harrigarriak eta ulertezinak iruditzen zaizkio.

Garaiak eta egoerak pertsonen bizitza mugatzen du, baina ez du aurrera egiteko eta zailtasunak igarotzeko indarra murrizten eta horri esker naiz hitzen bidez guzti hau adierazteko gai. Denborak mutu dauden pertsoneri ahotsa emateko gai izan delako eta beste batzuen bizitza gureak dituen gauza baliotsuen balioa neurtzen irakasten digu.

Zoe maitea,

Eneida Albistegui eta Maialen Portilla

Aldatze- Colegio Santa María de la Providencia- Eibar

Zer moduz doakizu madril aldetik? Ni orain ikastolan nago, azterketak hasteko zorian.

Gurasoak ondo dabilta eta goraintziak bidaltzen dizkizut haien partez. Amona, badakizu, bere kontuekin, kontu-kantari. Arestian bidali zenidan azken e-mailean san Bartolomé eskolako lagunak egin zenituenak esan zenidan eta lan batzuk liburutegira prestatzera joan behar zinela haiekin. Atzo euskarako klasean nengoela, andereñoak hurrengo galdera proposatuz igun: zer sentituko zenuke irakurtzen eta idazten jakingo ez bazenu? ezetz asmatu Zoe, zutaz oroitu nintzen. Burutik pasa zitzaidan Congotik etorri zinen lehen eguna, irakurtzen ez idazten zenekien eta zure begietan ezjakintasun eta inozentziaren tristura topatu nuen eta zure laguna izatera prestatu nintzen.

Oroimeneko argazki eta istorioak begiratzen, uste dut zuri eta zure familiari egin diodan oparirik baliagarriena irakurtzen ikaste adela. ez da bakarrik denbora pasatzeko ekintza bat, baizik eta mundua zure eskuan edukitzeko plazera. madriletik Congora liburu baten bitartez bidaia dezakezu, eta gainera zeure arbasoen istorioa ere jakiteko aukera paregabea da. Zenbat denbora pasatu ditugu nire etxean liburuak elkarri errekomentatzen? Zenbat barre eta zenbat negar egin ditugu gure liburu maiteek kontatzen ziguten istorioekin.

Dudarik gabe inprenta, letra eta hizkuntza gizakiak asmatu dituen "instrumenturik" baliagarrienak dira eta horregatik, oraingoan gutun baten bidez idaztea aukeratu dut, gauza onak ere galtzen dijoazelako. Neure, zeure eta mundu guztiaren esku egon beharko litzateke altxor hori, zoritxarrez ez da horrela eta gizarteak egoera hau aldatzeko ahalegin bate gin beharko luke.

Ikusi duzunez betikoa naiz, arazo hauetaz pentsatzen, kezkatzen eta gero zuri kontatzen.

Laztan handi bat. Miren.